



Ainhoa Díez - Jon Elortza
Aixerrota BHI, 15-16

Aurkibidea

Iñaki Frieria 3

Sarrera 4

Zureak egin du

Kokapena 5

Gaia 5

Argumentua 5

Istoria 6

Pertsonaiak 7

Egituraketa 8

Baliabideak 10

Iritzia 11

Bibliografia-Webgrafia 12

Iñaki Frieria

Iñaki Frieria Urbistondo idazle bizkaitarra 1962an urtean Barakaldon jaio zen. Euskal Filologian Gasteizen lizentziatu ondoren, itzultzaile eta interpretazio lanetan aritu zen zenbait urtetan. Itzuli zituen idazkien artean Jakintza Arloka entziklopediako kirloari buruzko liburukia eta frantsesetik itzultitako *L'entraîneur de football* daude. Geroago, 1996. urtean literatura arloan murgildu eta bere lehenengo liburua argitaratu zuen, *Izaroko Altxorra*.



1996. urtetik aurrera zortzi liburu plazaratu ditu, eleberri eta haur eta gazte literatura generoan gailenduz; hala ere, dibulgazio-arloko eta helduei zuzendutako lanak ere baditu.

Argitalpenen artean *Aska itzazue pottokak* (1998), *Trianoko gau gorriak* (2005) eta *Zureak egin du* (2009) obrak daude.

Libururen gai nagusia soziala izatea du gustuko, horren adibide argia da *Zureak egin du* aztertuko dugun eleberria.

XX. mendeko euskal pizkundeari dagokion idazlea dugu Iñaki Frieria. Literatura aro horrek Espainiako 36ko Gerraren eta Bigarren Mundu Gerraren amaieran du hasiera eta gaur eguneko obrak eta idazleak ere hartzen ditu bere baitan.

Estatu mailan bizi izandako frankismoaren eraginez euskal literaturak jasan zuen errepresioari aurre egin zion euskal kulturak; lorpen horren emaitzaz, euskal argitaletxeen eta argitalpenen ugaritze nabarmena gertatu zen, hainbat idazleren lanak plazaratzeko. Horrela, batzuk aipatzearen, ospetsu bilakatu dira Bernardo Atxaga (*Obabakoak*) edo Unai Elorriaga (*SPrako Tranbia*).

Sarrera

Iñaki Frierak 2009. urtean plazaratu zuen gaur arte bere azkenengo argitalpena den eleberria. Nahiz eta saririk lortu ez izan, ospe handikoa bilakatu da. *Zureak egin du* obraren bidez, idazleak gizarteari eta pertsonen izareri egindako kritika partekatzen du irakurlearekin. Gizartearen esparru zehatz bati buruzko azterketa egiten du, emakumeek sufritzen dituzten tratatu txarrak hain zuzen ere.

Liburuaren gaia hori izanik, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko erreportaje batekin dabilen kazetari batek jaso duen gutun anonimoa izango da gertakari guztien abiapuntua. Gutun horren barnean gizon batek emakume bati emandako jipoia grabaturik duen disko bat dago, kazetariari bideratutako mezu batekin batera. Hori ikusirik, bideoaren hartzaileak ezin izango du begizatutako egoera albo batera utzi eta egin beharreko erreportajetik askoz urrunago doan Sofiari buruzko ikerketa arriskutsu batean ikusiko da murgildurik.

Bi istorio ezberdin kontaktzen dira liburu honetan, bata kazetariak lehenengo pertsonan bizitzen ari den ikerketa eta bestea, pertsonaia ezberdinen adierazpenen bitartez kontaktutako Sofiaren bizitza.

Ez da herriaren izenik ematen, baina irakurlea orientatzeko zenbait kale eta auzoren izenak aipatzen dira. Teknika hori erabilia idazleak gertaeraren garrantzia azpimarratu nahi du, edozein lekutan gertatu ahal dela adieraziz.

Protagonista den kazetariak lehenengo pertsonan kontaktzen du istorioa. Hala ere, pertsonaia ezberdinen aitortpenak ageri dira, horiek ere lehenengo pertsonan idatziak. Liburuaren istorioa lau kapitulutuan banandurik dago, bakoitza egoeraren garapen-maila ezberdin bati dagokiona.

Idazleak erabiltzen duen estiloa sinplea eta jarraitzeko erraza da, euskara batuan eta estilo naturalean.

Kokapena

Istorioaren protagonista den kazetaria emakumeen tratu txarren aurkako artikulu bat lantzen dabilen bitartean, benetako kasu batekin egingo du topo. Horren ikerketa egiten hasten denean, bere etxetik eta lantokitik gainera, bizi den hirian zehar mugitu beharko da. Nahiz eta hiria ez den zehazten, idazleak irakurlea gidatzeko helburuarekin, zenbait kale eta auzoren izenak aipatzen ditu (*Pablo Picasso kalea*, esate baterako). Gune horiez gain, kazetariaren neska lagunak lan egiten duen ospitalean, zinema aretoan eta hiriaren zenbait topaleku garrantzitsutan garatzen da istorioa, hala nola, hiriko Psikologia Fakultatea edo psikologoaren kontsulta.

Hiru hilabeteko kontaketa deskribatzen da eleberri honetan. Esan bezala, kazetariak hasiera batean artikulu sinple bat idazteko beharra badu ere, bere neskalagunaren eragina dela bide, tratu txarrak pairatu dituen Sofia gaztearen kasuan murgilduko da. Denbora-tarte horretan, hasiera batean inkognita hutsa den bideoari izen-abizenak ipiniko dizkio; hau da, arazoaren jatorrira ailegatzea lortuko du protagonistak.

Gaia

Egungo gizartean emakumeek sufritzen duten indarkeriari kritika, Sofia gaztearengan islatuta.

Gai nagusia indarkeria izanik ere, bestelako gaiak ere jorratzen dira: misterioa, giza harremanak, gizakiaren izaera, kazetaritza lanbidea...

Argumentua

Kazetariari emakumeen aurkako tratu txarrei buruzko artikulu bat idaztea egokitu zaio. Hasi berria dela, gutun anonimo bat jaso eta jipoi izugarri baten bideoarekin batera mezu zuzen bat jaso du. Horren inguruan aztertzea erabaki ondoren, benetako kasu baten ikerketan barneratuko da, eta justizia egitea izango da bere helburu nagusia.

Nahiz eta hasiera batean kasualitatea iruditu, kazetariaren neskalagunak hurbildu zuen Sofiarengana, horrek ospitalean ezagutu baitzuen kasua eta laguntza eskaini baitzion.

Kazetariak, hainbat arazori aurre egin ondoren, Sofiaren senarra auzitegira eramatea lortuko du.

Istorioa

Liburu honen protagonista kazetari bat da eta bere neskalaguna erizaina. Emakumeen aurkako indarkeriari buruz egokitu zioten artikuluan zebilela, neskalagunak tratu txarrak pairatu zituen susmoa zuen emakume baten txartela zuela adierazi zion. Kazetariak Picasso bidean bizi zela jakinik bere etxera joatea erabaki zuen, nolabaiteko ikerketa baten bila. Bere harridurarako hango emakumea egoera bikainean zegoen eta erredakziora bueltatu zen esku-hutsik.

Egun gutxi batzuk geroago gutun-azal bat ailegatu zitzaion, bideo bat eta mezu bat zituen bere barnean. Bideoa, emakume batek begi-bistako arrazoirik gabe gau batean jasan izan zuen zafraldi itzela zegoen grabaturik. Nahiz eta irudiak oso ilunak eta kalitate txarrekoak izan, aseguru etxe baten errotulua ezberdindu ahal izan zuen kazetariak. Horrela, horrek zituen bulegoak bilatu eta bideoa grabatua izan zen eremuaren bila abiatu zen. Auzo hori aurkitu zuen eta bideoaren gertakaria zuzenean ikusi zuen gazte batekin hitz egin zuen.

Ondoren, bideoan agertzen zen kotxearen modeloa lortu zuen lankide baten laguntzaz eta jabe posibleen bila joan zen, erasotzailea deskubritzeko asmoz. Gertuen bizi zirenak bi izanik, notario bat eta haginlari bat, notarioaren bulegora jo zen. Han, notarioaren idazkariak Sofiagatik al zihoan itaundu zion eta zer erantzun ez zekiela, baietz adierazi zion; arratsaldean parke batean elkartzeko esan zion idazkariak. Hara joan eta idazkaria aurkitu beharrean gizon zahar bat (Sofiaren aita) topatu zuen kazetariak eta Sofia aukeratzearen zergatia galdetu ondoren, alde egin zuen.

Bi egun geroago, zinemarako sarrera bat jaso zuen bulegoan. Zinemara joan eta filma bukatzeko zegoela, aurrekoan ezagututako gizona aurreratu zitzaion eta beste gutun azal bat eman zion. Horren barnean Sofiaren tratu txarreatik txosten mediko bat aurkitu zuen.

Notarioarenera joanda bazen ere, oraindik ez zuen haginlaria ikertu; beraz, bere kontsultara joatea erabaki zuen. Kontsultan neskameak gizonak bi urte lehenago kotxea saldu zuela adierazi zuen.

Lortutako txostena ikertu eta Sofiak hainbat helbide ezberdin eman zituela ikusi zuen. Horien artean, idazkariaren aipamena aurkitu zuenean, aseguru etxera berriro ere joatea erabaki zuen. Hara ailegatu zenean idazkaria aurreratu zitzaion eta gune seguru batera ailegatu arte bere atzetik joan zen. Idazkariak ospitaleko txartelaren jabe zen emakumea tratu txarren aurkako elkarte bateko kidea zela eta Sofia babestearren utzi ziola azaldu zion. Bai eta, justizia egiteko asmoz kazetariari bideoa ematea erabaki zuten, ikerketa egingo zuela aurreikusiz. Elkarrizketa horren amaieran, Sofia ezagutzeko baldintzarekin jarraitu zuela esan zion kazetariak emakumeari.

Bere nahiak betetzeko Picasso Kalean bizi zen emakumearenera joan behar izan zen kazetaria eta honek itsasaldera eramanean zuen Sofiaren ahizpa ezagutzera. Egun hartan, zenbait gauza argitzearekin batera, ahizpak karpeta

batzuk pasatu zizkion kazetariari. Karpeta horietan abokatuari egindako kontsulta bakoitzean jasotako txostentxoak eta informazioak zeuden.

Horiek irakurrita Sofiak psikologo batenera jo zuela jakin zuen kazetariak; harengana joan zen froga gehiagoren bila. Psikologoari Sofiari buruz galdera batzuk egin bazizkion ere, pazientearen pribatutasuna zela-eta ezin izan zion erantzun. Hurrengo egunean, kazetariak izugarritzko jipoia jaso zuen bere etxearen atarian, ondoren aurkituko zuen psikologoaren senarrak eta Sofiaren senarrak zuten erlazioa zela eta. Zehazki, psikologoa Sofiarekin zebilen bitartean bere senarrari kontatu zion pazientearen egoera, bere senarrak berak Sofiarena ezagutzen zuela jakin gabe. Horrela, batzuk besteari zehaztapenak eta psikologoak emandako gomendioak esan zizkion. Gertatutakoa zela-eta kazetaria berriro ere Sofiaren ahizparekin batu zen; aita ere agertu zen hartan.

Kazetariaren emakumea Sofiaren senarraren deiak eta mespretxuak pairatzen zebilela, bere gurasoekin egun batzuetan egotera joatea erabaki zuen, egoera hura pasatu arte. Baina bidean, kotxe batek errepidetik bota zuen. Kazetariak gurasoenera ez zela ailegatu jakin zuenean, bide bera egin eta istripuarekin egin zuen topo.

Neskalagunak bultzatuta ikerketarekin jarraitzea erabaki zuen eta horretan zebilela, egun batean, adierazpenen bidez (aktetan jasoak) jakin zuen Sofiari ospitalean lagundu zion erizaina bere neskalaguna izan zela.

Gertaera horiek gorabehera, artikulua amaitzea lortu eta Sofiaren senarraren izen-abizenekin argitaratu egin zen. Horrek, izugarritzko sumindura eragin zion gizonari; eta kazetariari lanpostutik kaleratzea. Hala ere, bere xede nagusia lortu zuen, tratu txarren egilea auzipetzea eta justizia egitea.

Pertsonaiak

KAZETARIA

Bere lana izugarri maite du. Ez du gustuko gaur eguneko "kazetaritza modernoa" deritzona. Oso kuriozoso da eta kuriositate horrek arazo batzuetara eramango du. Nahiz eta kazetaritza lanak egiten dituen, azkenean sasi-detektibe lanak ere egiten ditu. Neskagalagunarengan konfiantza handia du. Objektu bat bezala sentitzen da istorioa aurrera joan ahala.

NESKALAGUNA

Kazetariaren neskalaguna, askotan oso temati jartzen zaio bere mutil lagunari nobelan, egiten duen lana utz dezan. Mutilagunari ahalik eta gehien laguntzen saiatzen da. Liskarrean dihardute nobelaren hainbat ataletan.

SOFIA

Bortxatu egiten dute. Haren senarrak tratu txarrak ematen dizkio. Berak ez ditu aitortu nahi eta beraz, isilpean gordetzen ditu. Ezkutatu egiten da etxebizitza batean. Bere familiaren laguntzak garrantzi handia du bere egoera sentimentalean. Azkenean jabetzen da, semea izatea ez zela bere bikoteko erlazioa konpontzeko aukerarik egokiena.

SOFIAREN SENARRA

Ankerra da. Bere emaztea jotzen eta iraintzen ematen du egun osoa. Nahiz eta beste pertsonen aurrean egon, emaztea mespretxatzen jarraitzen du. Sofiak alde egitea erabakitzen duenean, bere atzetik ibiliko da eta inguruko pertsonak mehatxatu egiten ditu Sofia non dagoen esan diezaioten. Istorioaren amaiera aldera, kazetariak pairatzen duen akzidentearen egilea da, kazetariari gelditzeko mezu zuzen eta argia bidaliz.

NOTARIOA

Haren semea, nolabait esanda, nobelako gaizkilea da.

PSIKOLOGOA

Sofiari eta honen familiari laguntzen saiatzen da. Kazetariari laguntza eskaintzen dio. Sofiari mentalki prestatzen laguntzen dio haren senarra salatu dezan.

SOFIAREN AHIZPA

Erabat murgilduta dago Sofiari laguntzeko kasuan. Denbora osoa bere ahizpari laguntzen saiatzen da, edozein gertakariren aurrean. Ez du inoiz haren senarrarekin erlazio onik izan.

IDAZKARIA

Sofiari laguntzen saiatzen da, askotan ez daki zer gehiago egin. Eta dudan jartzen du ematen zaion informazioa egiazkoa den ala ez.

SOFIAREN GURASOAK

Engainaturik sentitzen dira, hasieran euren alabaren senargaia jatorra zela uste zuten eta erabateko ilusioa zuten haien bikoteko erlazioan. Denbora aurrera joan ahala, konturatzen egiten dira gauzak zelan diren, eta erabat izuturik daude.

Egituraketa

Obra honetako idazleak, Iñaki Frierak, *racconto* izeneko baliabidea erabili du istorioa kontatzeko. Hasierako egoera bat aurkeztean eta momentu horretara arte ailegatzeko gertatu diren gertakari guztiak modu lineal batean kontatzean datza. Hau da, eleberrri honek egitura lineal bat du, baina aurkezten den hasierako egoeraren aurrekaria liburuaren parte gehienez kontatu egiten den ikerketa da. Honekin batera, flash-backez josita dago istorioa, pertsonaien adierazpenak eredu linealean atzera egiten dituzten tarteak baitira.

Begiak itxita jabetzen naiz, duela hiru hilabeteko itzaletan galduz zihoan berbera dela zeruko argi birakaria. (8)

Psikologoak biak joatearen garrantziaz egin zion berba, hark ere banakako terapia behar zuelako. Orduan jakin zuen Sofiak haurtzarotik zetoziola arazoak senarrari, eta oso barneratuta zeuzkala nortasunean, sentimenduetan eta jokabidean. (79)

Kontaketa kapituluka idatzirik dago, lau kapitulu ezberdinetan banatzen dira liburuak dituen 137 orrialdeak. Kapitulu bakoitzak aurrekoarekin zerikusia du, gaia berbera izanik eta protagonistak egiten duen ikerketaren sakontasun maila bakoitzari egokituz.

Lehenengo pertsonan idatzita dago, eta protagonista eta narratzailea kazetaria bera dira. Bere sentimenduak eta iritziak islatzen ditu gertaera guztietan zehar, bere pentsamenduekin batera.

Telefono gidan bilatu nuen aseguru etxearen izena, hirian bulego gutxi edukiko zuelakoan. Zuzen nengoen, hiru baino ez. (15)

Psikologoarenera joan nintzen arratsaldean, hitzordurik gabe. (84)

Baliabideak

Hona, obran erabilitako baliabide batzuk:

Deskribapena

Pertsonak, lekuak, egorerak eta abarreko ezaugarriak deskribatu ahal izateko adjektiboak erabiltzen ditu. Nahiz eta oso deskribapen zabalak ez egon, ezaugarri bakoitzeak argi transmititzen ditu. Egoerak deskribatzeko unean, esaldi laburrak, sinpleak eta argiak erabiltzen ditu.

Nasan geundela, harengara ez hurbiltzeko keinua egin zidan, lau atzamar erakustez batera. Gero eta nahasiago nengoen jolas harekin. Ingurura begiratu nuen, zere beldur zen ulertu nahian... (46)

Motots batean bildurik zeukan ile erabat urdindua. Puztuak ziruditen masailalboek eta sudur azpiko ezpainak, eta txikiago egiten zizkioten aurpegian gainerako organoak... (55)

Elkarrizketa

Bi pertsonaiaren edo gehiagoren arteko elkarrizketa behin baino gehiagotan erabilia da eleberrian. Baliabide honi esker, pertsonaia bakoitzaren izaera eta ikuspuntua jaso ditzakegu.

— Kontu batzuk argitu beharko dizkidazu...

— Ados. Baina toki bakartiago batean.

— Ez dut ulertzen zertara datorren beti ezkutuan ibili behar hau. Zergatik halako beldurra? Norengandik ostendu behar dugu behin eta berriro?

Besotik oratu eta metrotik kanpora eraman ninduen. Euritakoak zabaldu barik, arineketa disimulatu batean, plazaren alboan dagoen elizan sartu ginen. Hutsik zegoen. Plastikoz gorritz bildutako bi kandela azkenetan zeuden aldarean, argi gaixo bat ematen ziotela azpiko mahai santuari.

— Nondik hastea nahi duzu? —esan zidan, sarreratik ikusi ezin zitekeen aitorlekuen atzeko bankuetako batean jesarri ginenean.

— Bideoaren kontutik, adibidez.

— Ez; ospitaleko txartelaz hasiko naiz. (51)

Errepikapena

Eleberriak kontatzen duen istorio osoan, Sofiaren izena baino ez dugu. Honek Sofiaren pertsonaiari garrantzi handia ematen dio, bera baita izen bereziz aurkezten den pertsonaia bakarra.

Banekin neskalagunak ez zuela atzera egingo. (8)

Sofiaren familiak kontratatu zuen abokatuaren txostenaren lehen orriak irakurrita, psikologo batekin kontsultatu zutela jakin nuen. (66)

Narratzaile-protagonista

Liburu honetan protagonista narratzailea da. Beraz, lehenengo pertsona idatzita dagoen eleberria da. Bere ikuspuntutik deskribatzen ditu bai pertsonaiak bai gertaerak eta berak gauzak deskribatzen dituen heinean deskubrituko ditu irakurleak.

Bigarrenez hanka egiten uzteagatik haserretuta, barrura joan eta paperak aztertzen hasi nintzen. (35)

Arretaz begiratu nituen gainerako argazkiak. Berehala erreparatu nion notarioaren gaztetako argazkiaren ezker aldean zegoen gazte segail baten erretratuari. Hantxe neukan psikologoarenean abokatuen kabineteko

xafloko abizenetako bat (...) Promozio bereko ikasleak ziren orduan, bazkideak gaur egun! (87)

Barne-bakarrizketa

Narratzaile- pertsonaia izanda liburu honen narratzailea, zenbait kasutan barne-bakarrizketak desberdindu daitezke:

Etorbidean aurrera jo nuen, jipoia gertatutako lekura heldu eta zer egingo nuen pentsatzen. Zertarako balio zidan gertalekuraino heltzeak? Zertarako bilatzen ari nintzen bideoak eskaini zidan erreferentzia bakarra? Ez nuen erantzunik aurkitzen, barruko senak hala jokatzeko agindu zidala esan nuen neure kabutan... (16)

Esamoldeak

Obrari titulua ematen dion “Zureak egin du” esamoldea oso garrantzitsua da. Esamolde honek norbaiteri akabua adierazteko helburua du.

Beste hizkuntza batzuetako esamoldeak ere erabili ditu, frantsesez esaterako.

C'est la vie (67)

Iritzia

Obra honen titulua *Zureak egin du* izanik, jorratuko den gai nagusia aurreikusi dezakegu. Izan ere, esamolde honek akabua adierazten du eta tratatu txarretan erasotzaileak biktimarekiko harreman bortitza eta gorrotozkoa dauka; beraz, izenburua indarkeriarekin erlazionatu dezakegu. Izenburu horrek, aldi berean, irakurlea erakarri egiten dio, misterioa eta ezinegona transmititzen.

Eleberri horrek bi istorio ezberdin kontatzen ditu, alde batetik protagonista den kazetariak lehenengo pertsonan garatzen duen ikerketa eta bestetik, pertsonaia ezberdinen adierazpenen bidez jakinarazten zaigun Sofiaren bizitza eta kasua.

Lehenengo istorioa, ikerketa, oso garbia dela deritzogu, jarraitzeko erraza eta argia; bestea, ordea, nahiko korapilatsua eta kronologia ordena gabekoa. Aipatu bezala, bigarren istorio hau Sofiaren kasua da eta Sofiaren bizitza zuzenean ezagutzen ez dugunez –ez dago kazetariaren eta Sofiaren arteko erlazioirik, inoiz ez dute elkar ezagutzen– adierazpenen bitartez ezaugarriak eta gertakari ezberdinen ordena jakitea nahiko zaila dela iruditu zaigu.

Azken batean, bi kontaketa hauek osagarriak dira eta hari zuzentzailea den ikerketa aurrera joan ahala, Sofiaren bizitza eta kasuari buruz dakiguna gehiago da. Adierazpenak liburuaren hasieratik ordena kronologikorik gabe agertzen direnez, Sofiari buruz jakingo ditugun datuak zehaztasun gutxikoak izango dira.

Ezaugarri honekin batera, idazleak duen estilo argia goraiatu nahiko genuke. Erabili izan duen lexikoari eta egiturei esker, nahiz eta ekintza ugari deskribatu, oso argi eta erraz idatzirik daudenez, oso ondo ulertzen dira, gure kasuan behintzat.

Jorratu izan duen gaia oso erakargarria egin zitzaigun hasieratik. Tamalez eguneroko bizitzan oso hedaturik dagoen mintzagaia da eta hamaika liburu zein artikulutan jorratua izan da; gai honen erabilerak sinesgarritasuna ematen dio eleberriari.

Iñaki Frieraren liburu honek, ordea, beste ikuspuntu bat ematen dio irakurleari. Biktima balitz bezala sentiarazten du irakurlea, Sofia gazteak pairatu dituen tratua ikusita eta horien gogortasuna modu ezin hobean transmitituta.

Biktimarekiko hurbiltasun bat lortzen du irakurleak; eta, aldi berean, kazetariak aurrera daraman ikerketaren misterioa ere transmititzen du. Esaterako, oso pasarte garrantzitsua dela deritzogu neskalagunak auto istripu bat duenean, Sofiaren senarrak eragina. Pasarte horretan, kazetariak izugarritzko ezinegona eta estutasuna sufritzen ditu eta sentimendu horiek geuk ere izan ditugu, irakurleok.

Bibliografia-Webgrafia

Zureak egin du. Iñaki Friera. Susa, 2009.

- <http://www.slideboom.com/presentations/190248/IÑAKI-FRIERA-POWER-POINT>
- <http://www.galtzagorri.org/castellano/escritores/inaki-friera-urbistondo/biografia>
- <http://www.idazleak.eus/euskara/idazleak/inaki-friera-urbistondo>
- <https://eu.wikipedia.org/>
- <http://www.bostakbat.org/azkue/>
- <http://www.ikasten.ikasbil.net/mod/forum/discuss.php?d=337553>
- http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1162888754
- <http://alarbhitgazeliteratura.blogspot.com.es/2011/08/zureak-egin-du.html>
- <http://kritikak.armiarma.eus/?p=4734>
- <http://laidamarcos.wikispaces.com/4.+artikulua>
- <http://www.susa-literatura.eus/cgi-bin/liburuok.pl?lib=narr8302>
- http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/hizt_el/index.asp
- <http://www.armiarma.eus/emailuok/?p=1655>
- <http://www.atalak.eus/ikasgela/nola-egin/il-gida/index.html>